

AZPEITIA

Enpresetan euskara planak garatzeko zentroa abian jarri du Euskara Patronatoak

Elegune ostiralean aurkeztuko dute udaletxean

MAILLO OIARZABAL

AZPEITIA. DV. Lan-munduan ere euskararen erabilera sustatzeko tresna berria aurkeztuko dute etzi udaletxean Azpeitiko Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskaltzaindiak eta Adegik Gipuzkoako Enpresaburuak Elkarteak: Elegune. Herriko enpresek eguneroko lanean erabiltzen dituzten hizkuntzen gestio egokia egiten laguntzeko Azpeitiko Udak Euskara Patronatuak abian jarri duen zentro tekniko da Elegune, eta nahi duten enpresentzako euskara planak diseinatu eta garatzen laguntzea izango da bere eginkizun nagusia.

Patxi Saez Patronatuko zuzendariak nabarmentzen duenez, enpresen beharrak kontuan hartuta garatu eta «enpresek enpresentzat egindako gunea» da Elegune. Legegintzaldi honetan Euskara Patronatuaren proiektu nagusia izan da Elegune eta bizpahiru urte aritu dira lanean bertako arduradunak zerbitzu berri honen nondik norakoak definitzen, eta prozesu horretan herriko bost enpresa (Biele, Zubiola, Danona, Glual eta Antzibar) izan dituzte bidelagun.

Proiektu aitzindaria

Elegune enpresen hizkuntz gestioari zuzenduta Euskal Herrian abian jarriko den lehenengo zentro tekniko izango dela ere nabarmendu dute Euskara Patronatuko arduradunek, eta horrelako



Euskaltzaindiak Biele bisitatu zuen, Elegunerekin lanean ari den enpresa. [OIARZABAL]

zerbitzu bat Azpeitian sortzearen arrazoiak ere gogora ekarri dituzte. «Azpeitiko enpresetan -dio Saezek- euskaldunen kopurua %90 da, eta batzutan ia %100. Oso egoera egokia da horrelako zentro batek zerbitzua martxan jartzeko».

Orain dela 20-25 urte udal euskaltegiak «euskaraz alfabetatzaren aldetik zegoen hutsunea» betetzeko sortu ziren antzera, orain tresna berriak behar direla diote Patronatutik. «Azpeitiko Udalak euskararen erabilerrakiko hutsunea ikusten du enpresa arloan, eta horri erantzuteko tresna egokia hau dela».

Euskararekin lotutako beste hainbat ekimenetan bezala, Azpeitiak «honetan ere aitzindari eta traktore lana» egingo duela dio Saezek. Elegune «plan piloto bat da», bere esanetan. «Ondoren, emaitzak ikusita, gainerako balailetan zabaltzeko asmoa du Jaurlaritzak. Azpeitiak bere beharrak

osatzeko sortu du, baina zabalteko arazorik ez dago».

Harrera ona

Eleguneren proiektuak Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik «harrera ona» izan du. Hain zuzen ere, bi erakunde hauek dira proiektuak diruz lagunduko dutenak Udalarekin batera. Eleguneren zerbitzuak doakoak izango dira enpresentzat.

Eta herriko enpresa nagusien ere ondo hartu dute Patronatuaren ekimena. Hain zuzen ere, etzi egingo den jendaurreko aurkezpenaren aurretik herriko enpresa handienetan (Corrugados Gallardo, Altuna y Uria, Sammic, Lan Mobil, Astigarraga Kit Line, Sarralle, Zubiola, Biele, Grumal-Pemec, Glual eta Danona) aurkeztu dute Elegune, eta guztiak egin dute bat proiektuaren eskaintzarekin. Horrenbestez, guztira 2.100 langile daude dago-

eneko proiektuan sartuta, herriko industria arloko %55. Bielen eta Zubiolan, gainera, dagoeneko ari dira euskara planak garatzen.

Bakoitzaren neurria

Elegune, ordea, ez da sortu enpresa handietarako, guztientzat baizik. «Horrelako zerbitzu baten beharrik handiena enpresa txiki eta ertainek dute, ez baliabiderik eta ez denborarik ez dutenek. Hauei dena mamituta eman behar zaie», dio Patxi Saezek. Alde horretatik, «planteamendu berritzailea» eskainiko du, «Elegune enpresa bakoitzaren funtzionamendura egokitu da, bi plan berdin ez dira egingo, enpresa bakoitzera egokitutako planak diseinatuko ditugu».

Enpresa handiekin izandako harremanen ondortik, orain Elegune banan bana jarriko da harremanetan herriko gainerako enpresa guztiekin, bere zerbitzuak eskainiz. ■

Alzheimerrari buruzko hitzaldia, gaur Aitonengan

AZPEITIA. DV. Bihar, irailak 21, alzheimerraren munduko eguna ospatuko da. Gutxi gora-behera 4.000 gipuzkoarrek dute gaixotasun hori. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Afagik, Gipuzkoako Alzheimer gaixoen senideen elkarteak, sentsibilizazio kanpaina bat martxan jarri dute, 'Ezagutzen ez banauzu ere, badakit nor zaren' lelopean.

Kanpaina horren barruan, gaur, gaixotasun horri buruzko informazio hitzaldia emango dute Aitonena I-eko aretoan, 15:30etatik aurrera. Borja Inza lan-terapeutak 'Zer egin dezakegu Alzheimeraren aurrean?' izeneko hitzaldia emango du. Helburua da familiei zenbait gako eskaintzea gaixotasunaren prozesuari hobeto aurre egiteko.

Kanpaina osatzeko, beste udalerririk batzuetan ere hitzaldiak emango dira (Arrasate, Zarautz eta Donostia); dendetan, kultur etxeetan, kiroldegietan, osasun etxeetan eta adineko pertsonen elkartetan kartelak jarriko dira; eta topaketa egun bat antolatuko da. ■

BREVES-AZPEITIA

Matrikula zabalik Udak Euskaltegian

Datorren irailaren 26an bukatuko da Udak Euskaltegian 2006-2007 ikasturterako matrikula egiteko epea. 30 ikastarotik gora eskaintzen ditu euskaltegiak ikasturte berrirako. Informazioa jaso edota izena emateko, euskaltegi joan (Perdillegi 1, musika eskola dagoen eraikina) edo deitu (943 811947 telefonoa) daiteke, 8:00etatik 18:00etara. Internet bidez ere egin daiteke, euskaltegia@erabili.com helbide elektronikora deituta edo www.erabili.com/eskatu/euskara_ikas-tarokak web orrialdean.

Becas en Iruurgi Ikastetxea

Iruurgi Ikastetxea informa que el plazo para la solicitud de ayudas para el curso académico 2006-2007 estará abierto desde hoy hasta el 16 de octubre. Los impresos se solicitarán y, una vez rellenados, se entregarán en la sede principal del colegio (Etxe Alai, 18). El horario para gestionar las becas será el siguiente: lunes, miércoles y jueves de 10.30 a 11.00, y martes de 15.00 a 17.00. A los renovantes (los que recibieron la beca el curso pasado) se les facilitarán las hojas de solicitud ya impresas. Los alumnos de Educación Infantil 3 años, 1º de Educación Primaria, 1º de ESO y 1º de Bachiller, al haberse incorporado a una nueva etapa, tienen que rellenar nuevas solicitudes. Para más información, los interesados pueden llamar al teléfono 943 810210.



Mañana habrá partido en Frontoi Txiki. [OIARZABAL]

La jornada del Interclubes de pelota arrancará mañana

AZPEITIA. DV. Al igual que la semana pasada, la segunda jornada del Campeonato Interclubes de pelota también se disputará dividida en dos días en Frontoi Txiki. Mañana a las 19.00 horas se disputará el partido adelantado, correspondiente esta vez a la categoría de seniors por parejas, en el que la pareja del Ilunpe compuesta por Larrañaga y Odriozola se medirá a los representantes del Intza de Lasarte.

El motivo del adelantamiento de este partido al jueves es que el delantero azpeitiarra Urtzi Larrañaga debe disputar el próximo domingo la final del torneo de

Leitza. Larrañaga, reciente campeón y acreedor al premio de mejor pelotari del torneo en Lezo, formará pareja esta vez con Báez, para medirse a Olazabal y Mitxelena.

El resto de la segunda jornada del Interclubes, con partidos para los juveniles y cadetes del Ilunpe, se disputará el sábado a partir de las 17.00 horas.

Palistas en Tolosa

Las dos parejas de Ikasberri K.E. que están participando en el torneo de pala de Tolosa han alcanzado las semifinales de la competición. El pasado fin de semana Bikutze e Imanol (Ikasberri I) perdieron ante la pareja de Zumaiá (39-45) y Larra y Txoldo (Ikasberri II) se impusieron a los de Alzatarak (40-29).

Este viernes, en el frontón de Andoain, se disputarán las semifinales, y las parejas azpeitiarras tendrán como rivales respectivamente a los representantes de Hernani y Zumaiá. ■

EMAKUME BAT behar da
Se necesita **MUJER**
Etxeko lanak egin eta 2 ume zaintzeko.
Para tareas del hogar y cuidar 2 niños.
Teléfono 609 039 494

MERCERÍA / LENCERÍA
SE TRASPASA
Por no poder atender.
Tels. 635 757 255 - 943 812 167
(Inmobiliaria Pildain)

SE NECESITA
DECORADORA
Con experiencia en muebles, ventanas, armarios, etc.
Para la zona de Azpeitia.
Interesados llamar.
690 935 585